

## **Etika Publikorako Batzordea**

**Gaia: 11/2023**

**ERABAKIA, (...)KO (...)K KARGU PUBLIKODUN OHI BATEN KONTRA AURKEZTU DUEN SALAKETAREN HARIRA (...) HORREK EGINDAKO KONTSULTARI BURUZKOA.**

1.- (...)ko (...)k (...) horretako (...) ohiaren kontra aurkeztutako salaketaren kopia jaso da Etika Publikorako Batzordean (EPB).

2.- Igorritako idazkian adierazten denez, (...)k (...) ohiaren kontra aurkeztutako salaketaren kopia bidaltzen da, *“azter dadin (administrazio- eta diziplina-alderdiak bakarrik aztertuko dira; alderdi penalak aztertzeke, interesdunak poliziarengana edo epaitegietara jo beharko du) [...]”*.

3- Etika eta Jokabide Kodeak (EJK) 16.3.1 artikuluan ezarritakoaren arabera, EPBren eginkizuna da EAEko Administrazioiko eta haren sektore publikoko kargu publikodunek eta bestelako instantziek EJKren aplikazioari buruz giten dituzten kontsultak ebaztea.

4.- Horiek horrela, EPB honek, EJKren 16.4 apartatuaren bigarren tartekiak aipatzen dituen tresna telematikoak baliatuta, erabaki hau hartu du, aho batez.



## **ERABAKIA:**

### **I.- Aurrekariak**

1.- Gobernu Kontseiluak, 2013ko maiatzaren 28an, Etika eta Jokabide Kodea (EJK) onartu zuen, zeina egun jasota baitago 2016ko azaroaren 22an onartutako testu bateginean. Kode hori sortu zen, hain zuzen ere, politikaren etika-zentzua berreskuratzeko eta herritarrek beren erakundeetan duten konfiantza berreskuratzeko.

Horretarako, aipatutako Kodeak zehaztu egiten du zer jokabide, jarrera eta portaera eska dakizkiekeen Eusko Jaurlaritzako goi-mailako zuzendaritza exekutiboko kide diren kargu publikodunei eta parekatuei, haien jardura publikoak eta pribatuak bat etor daitezten dokumentu horretan zehaztutako balio, oinarri eta jokabide-estandarrekin. Horren guztiaren helburua integritatea eta eredugarritasuna sustatzea da, Jaurlaritzaren irudi instituzionala gordez, haren eraginkortasuna sendotuz eta herritarrek beren erakundeetan duten konfiantza gutxitu ez dadin ahaleginduz.

2.- Bere aldetik, Kargu publikodunen jokabide-kodea eta haien interes-gatazkak arautzen dituen ekainaren 26ko 1/2014 Legea eginkizun publikoak dituenak betebeharrak etiko bat eta betebeharrak sozialak bete ditzan eman zen, horrela mantendu nahi baita gizarteak guztion interesa kudeatzen duenarengan duen bidezko konfiantza, bai eta kargu publikoak dutenek bizitza politikoan erabili behar duten gardentasuna ere.

Lege horren II. kapituluak eginkizun garrantzitsu hau du: kargu publikodunen Jokabide Kodea osatzen duten printzipio orokorrak ezartzea.

Kapitulu horren asmoa ez da soilik zerbitzari publikoaren eredu adieraztea edo horri buruzko informazioa ematea; izan ere, zerbitzari publikoak zaindu eta bermatu nahi da. Horrez gain, testu arauemaile bat ere bada, lege-mailakoa, karguari dagokion funtzio publikoan aritzean bete beharreko eginkizunak ezartzen baititu.

Ildo horretan, Etika eta Jokabide Kodeak (EJK) bere egiten du 1/2014 Legearen II. kapituluaren edukia (kapitulu horretan arautzen dira kargu publikodunen Jokabide Kodea osatzen duten printzipio orokorrak).

Era berean, 1/2014 Legeak kargu publikoaren kontzeptua zabaltzen du, Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoan zuzendaritza-eginkizunak betetzean kontrola sendotzeko eta gardentasuna sustatzeko. Horren arauketa egungo Etika eta Jokabide Kodean dago jasota.



3.- Etika eta Jokabide Kodeak bost balio ditu ardatz: integritatea; bikaintasuna; politikaren eta kudeaketaren arteko lerrokatzea; lidergoa, eta berrikuntza. Gainera, funtsezko sei printzipio ditu: inpartzialtasuna eta objektibotasuna; kudeaketarako erantzukizuna; gardentasuna eta gobernu irekia; onestasuna eta desinteres subjektiboa; errespetua, eta eredugarritasuna.

Balio eta printzipio horiek ardatz direla, Kodeak hainbat jokabide, jarrera eta portaera jasotzen ditu, eta EPB honek haiek erreferentziatzat hartuta jardun behar du, erantzun egokia emateko beren borondatez Kodearekin bat egiten duten kargu publikodunek eta parekatuek zein Kodearen xedapenak eraginkortasunez betetzeko benetako interesa duten gainerako pertsonen helarazitako gai eta zalantza etikoei.

4.- Horretarako, EJKren 16.3 apartatuaren lehenengo tartekian ezarritakoaren arabera, Etika Publikorako Batzordearen eskumena da “Etika eta Jokabide Kodean jasotako balioen, printzipioen eta jokabideen balizko ez betetzei buruzko kezak edo salaketak jasotzea, halakorik balego, eta dagozkien izapideak egitea”.

## **II.- Etika Publikorako Batzordeari aurkeztutako aztergaia**

1.- (...)k salaketa bat bidali du Etika Publikorako Batzorde honetara, (...) horretako (...)k (...) ohi eta (...) fitxategiaren arduradunaren kontra aurkeztua.

Igorritako idazkian adierazten denez, salaketaren kopia bat bidaltzen zaio EPB honi, “azter dadin”, baina ez da besterik zehazten. Beraz, pentsatzekoa da kontsultaren helburua dela EPBk azter dezan ea kargu publikodun ohiak Etika eta Jokabide Kodea urratu duen ala ez, hori baita Batzordearen eginkizuna.

2.- Horri lotuta, gogora ekarri behar dugu EPB honek askotan (berriki, 1/2021 eta 7/2023 erabakietan) adierazi duena, alegia, Etika eta Jokabide Kodeak agintzen duena mugaturik dagoela denbora batera eta gai batzuetara. Onartu zenetik daude definiturik muga horiek (Gobernu Kontseiluaren 2013ko maiatzaren 28ko Erabaki bidez onartu zen), eta, gerora ere, ekainaren 26ko 1/2014 Legea onartu zenean, muga horiek ez ziren aldatu (kargu publikodunen jokabide-kodea eta haien interes-gatazkek arautzen ditu lege horrek). Horrenbestez, 2. artikuluan zehazturik dauden kargu publikodunek bakarrik daukate Kodea bete beharra, betiere ofizialki izendatuta geratu ondoren, eta, “banakako atxikipenaren” bidez, hitzeman ondoren beteko dutela han agintzen zaiena. Etika eta Jokabide Kodearen testu bateginaren 18. artikuluan



dator atxikipen hori; 2016ko azaroaren 28an argitaratu zen Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian.

3.- Ildo horretan, EJK-k aipatutako arauan izendatzen diren eta kodearekiko atxikipena aurkeztu duten pertsonak baino ez ditu behartzen. Hartara, aplikazio-eremutik kanpo geratuko da dilema etikoren bat sor dezakeen gainerako langileen —funtzionarioen edo bestelakoen— jarduna, baldin eta Batzorde honek ez badu haren gainean iritzia emateko eskumenik. Hori dela eta, Batzorde hau abstenitu egin da, esate baterako, Eusko Jaurlaritzatik kanpoko kargu publikodunak hizpide zituzten gaietan —hala nola 5/2019 Erabakian aztertutako gaian— edo 1/2014 Legearen aplikazio-eremuan sartzen ez diren figura instituzional bereziak hizpide zituztenetan —ikusi 1/2019 Gaia—.

4.- Denboraren ikuspegitik, EJKn jasotako balioak, printzipioak eta jokabideak lehen aipatutako kargu publikodunei aplikatuko zaizkie, kargu publikodun horiek lege ezarritako prozeduraren arabera izendatu diren eta Kodearekiko atxikipena formalizatu duten unetik aurrera, eta kargudun gisa dituzten eginkizunetan jarraitzen duten bitartean. Hala, EJKren ondorioak zer denboratara mugatuko diren xedatzeko, erabakigarria da kargudun izendatutako pertsona Kodeari atxikitzea. Izan ere, atxikipenak zehazten du hasierako unea (gai hori dela eta, ikusi 10/2017 Erabakia); aitzitik, EJK-k indar loteslea galtzen du haren aginduen eraginpeko kargu publikoa betetzen duen pertsonak bere erantzukizun publikoa uzten duenean lege ezarritako prozeduraren bidez.

5.- Bestela esanda: EPB honek diharduen eremu subjektiboak ez dauka izaera unibertsalik, zeren eta EJKren 2.1 apartatuan “hartzaileak” epigrafearen barruan zehazten diren pertsonen bakarrik eragiten baitie, eta ez beste inori. Eta haren irizpenen oinarrian dauden parametro etikoaren barruan ez da sartzen balio moral guztien unibertsoa, baizik eta EJKn jasotako balio, printzipio eta jokabide zehatzak.

Horrenbestez, Etika eta Jokabide Kodearen testu bateginak (2016ko azaroaren 28ko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria) 2. artikuluan zehazten dituen hartzaileek bete behar dute Kodea, pertsona horien izendapena formalizatzen denetik haien kargu-uzteak ondorioak izan arte.




6.- Erabaki honetan adierazi den bezala, Batzorde honek ezin du bere gain hartu haren eremu subjektibotik kanpo geratzen diren elementuak epaitu eta baloratzeko eginkizunik.

Hori guztia aintzat hartuta, Etika Publikorako Batzordeak hau erabaki du, aho batez.

**ERABAKIA:**

BAKARRA.- Ez onartzea (...)k (...) ohiari buruz aurkeztutako kontsulta, kargu publikodun horrek ez baititu bete behar Etika eta Jokabide Kodeko aginduak.



Olatz Garamendi Landa

Etika Publikorako Batzordeko lehendakaria.

Vitoria-Gasteiz, 2023ko ekainaren 19a.

